

ARTEA. 'Morar' erakusketa paratu berri dute Iruñeko Moises Perez de Albeniz galerian

Gizakiak bizi duen espazioari buruzko gogoeta, Ferran eta Oteroren eskutik

Argazkiak, eskulturak eta ikus-entzunezko bat baliatu dituzte artistek euren azken proposamen plastikoa osatzeko



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Morar izenburuko erakusketan euren azken proposamenak bildu dituzte Leopoldo Ferran eta Agustina Otero artistek.

Eduarne Elizondo | IRUÑEA

Leopoldo Ferran eta Agustina Otero. Agustina Otero eta Leopoldo Ferran. Bi artiston arteko elkarlanak proposamen ikusgarri eta berriak eman ditu argitarara 1994. urtean bat egin zutenetik eta azken emaitza Iruñeko Moises Perez de Albeniz galerian ikusi ahal da, datorren maiatzaren 10a bitarte, *Morar* izenburupean.

Ferran eta Oteroren erakusketaren atzean, euren artelan guztiaren atzean bezala, gogoe-tarako bidea eskaintzeko asmoa dago. Horretarako, gogoe-ta eragiteko, argazkiak, eskulturak eta ikus-entzunezko lan bat baliatu dituzte artistek. Proposamen anitza, era askotako diziplinak nahasten dituen, biko-tearen ibilbidean ohikoa den bezala.

Zura eta burdina dira nagusi Moises Perez de Albeniz galeriarako egindako proiektuan. Formei dagokienez, izenburuarekin lotzen direnak nabarmen-

tzen dira, hau da, etxea edo etxeko elementuak gogora ekartzen dituztenak: leihoak eta ateak, batez ere, zurez egindako markoen bitartez, argazkietan islatutako espazioak ixteko balio duten burdinsareen bitartez, itsasoaren erdian sutan dagoen koltxoiaren argazkiaren bitartez... Dena, gizakiari berari eta gizakiak bizi dituen espazioei buruzko proposamen plastikoa osatzeko.

Erakusketaren bidez eragin nahi duten gogoetaren espazioa, hain zuzen ere, etxeko espazioa da. Ildoa proposatu, bai, baina egileek ez dute euren lanen bidez ideia zehatz bat azpimarratu nahi. «Galderak eragin nahi ditugu», azaldu zuen Leopoldo Ferranek.

Errepikatzen dena

Bada, hala ere, ildo nagusi bat Ferran eta Oteroren lanaren atzean, eta da errepikatzen denaren inguruko gogoeta. Hori, noski, erakusketari izena ematen dion *morar* edo *bizi izan*

LEOPOLDO FERRAN

Artista

«Gizakiaren existentzia etxeko espazioarekin lotu nahi izan dugu, ikuslearengan galderak eragiteko asmoz»

hitzarekin lotuta. Finean, «gizakiaren existentziarekin» lotzen dira Iruñeko galerian bildutako piezak. «Gizakiaren existentzia hori, aldi berean, etxeko espazioarekin lotu dugu», azpimarratu zuten artistek.

Ikus-entzunezkoaren bitartez lortu dute Ferran eta Oterok argiekin errepikatzen denaren ideia nabarmentzea: zuri-bel-tzean, harri-jasotzaile bat agertzen da galeriako hormetako batean proiektatuta, etengabe harri zilindriko bat lepoaren inguruan, batetik bestera mugitzen. «Ziklikoa dena islatu nahi izan dugu, irteerarik gabeko la-

berinto bat balitz bezala. Hori baino gehiago, bidea agertu nahi izan dugu, irteera baden edo ez den argitu gabe», azaldu zuten.

Instalazioa, espazio komuna

1994. urtetik elkarrekin gauzatu dituzten proiektuen inguruan, «espazio komunak» direla azpimarratu zuten bi artistek. Leopoldo Ferran pinturaren eta instalazioen esparruan hezitako egilea da gehiago, eta, Agustina Otero, berriz, eskulturaren arloan. Elkarrekin sortu eta garatutako proposamenek, berriz, diziplinen arteko nahasketatik sortutako instalazioetan aurkitu dute bidea.


Biek nabarmendu zuten artea «lengoaia biziki indartsua» dela eta oso zaila dela arte plastikoak islatzen duena beste lengoia baten bidez azaltzea. Ildo horretan, euren obrak zentzu zabalekoak direla gaineratu zuten, eta haien interes nagusia ikuslearen jakin-mina piztea dela.

euskararen
donostia
patronatua



Antzerkia

•• Donostiako II Antzerki Saria



Lan irabazlea: Vaiven taldearen «**Lotsa gabe**»
Sari emate ekitaldia eta lan irabazlearen emanaldia
Martxoaren 27an
20.00etan
Antzoki Zaharrean

Gonbidapenak
martxoaren 25,
26 eta 27an
jaso ahal izango dira
Antzoki Zaharreko
leihatilan ohiko
orduetan.

•• «Emakumeen Sekretua»
Zurriola Antzerki Eskola
Martxoaren 23an,
20.00etan
Egia Kultur Etxean

zinea

•• «Kiriku eta sorgina»
Marrakzi bizidunak
Zuzendaria:
Michel Ocelot
Martxoaren 23an
17.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

tailerrak

•• Soinua
Apirilaren 9tik
ekainaren 4ra
16.00etatik 18.30etara
Larrotxene Kultur Etxean

•• Dokumentalen gidoia
Apirilaren 9tik
ekainaren 4ra
18.30etatik 21.30etara
Larrotxene Kultur Etxean